
KUTXA KULTUR ARETOEN ESKAERA

ESKATZAILEAREN ESKAERA

IZENA _____

ABIZENAK _____

ERAKUNDEA _____

TFNO. 1 _____

TFNO. 2 _____

POSTA ELEKTRONIKOA _____

ZERGA-DATUAK

ERAKUNDEAREN IZENA (osorik) _____

POSTA HELBIDEA _____

IFK-HELBIDEA _____

TELEFONOA _____

POSTA ELEKTRONIKOA _____

ERRESERBAREN DATUAK

ARETOA _____

HASIERA-DATA – AMAIERA-DATA (uuuu/hh/ee) _____

EKITALDIA HASTEKO ETA BUKATZEKO ORDUA (formatua: 00:00-00:00) _____

EKITALDIAREN DESKRIBAPENA _____

BERTARATUEN KOPURUA GUTXI G.B. _____

SARRERA MOTA (edonorentzat/murritzua) _____

BEHAR DIREN ELEMENTU TEKNIKOAK

OHARRAK

KUTXA KULTUR GUNEEN ARAUDIA

- Enpresek edo erakundeek (aurrerantzean, 'erabiltzailea' ere bai) Kutxa Fundazioaren Kutxa Kultur guneen aldi baterako lagapena eskatu ahal izango dute, eskatzaileak bakarrik erabiltzeko. Eskakerak lagapenaren hasiera-data baino 30 egun natural lehenago egin beharko dira gutxienez.
- Erabiltzaileak bere gain hartzen du jardueraren garapenaren, eskaeraren edukiaren egiazkotasunaren eta gune edo lekuak lagatzeko araudi honen ardura.
- Debekaturik dago Kutxa Fundazioaren Kutxa Kultur guneetan salmenta, publizitatea edo sustapena egitea helburu ekonomikoekin.
- Egile, edizio, erreprodukzio, publizitate, erakusketa eta abarren eskubideengatik baimena lortzea, tasak ordaintzea eta abar eskatzen duten ikus-entzunezkoak, entzunaldiak edo beste edozein elementu erabiltzen badu erabiltzaileak aretoan, bere erantzukizuna izango da legeak erabilera horretarako eskatzen dituen baimen eta lizentzia guztiak eskuratzea, eta horri dagokionez Kutxa Fundazioa salbuetsita geratuko da erantzukizun guztietatik.
- Kutxa Fundazioa gune edo lekua lagatzera mugatuko da. Ustekabeko edozein zirkunstantziaren aurrean, edo COVID 19ak eragindako osasun-alarmaren ondorioz (besteak beste, osasun-agintariak behartuta edo gomendatuta) Kutxa Fundazioak ekitaldi jakin bat bertan behera utzi edo instalazioak itxi eta lagapena ezeztatu egin beharko balu, hori ez litzateke, inola ere, antolatzaileei, parte-hartzaileei edo beste esku-hartzaile batzuei kalte-ordaina emateko arrazoi izango.
- Hala dagokionean, programazio-aldaketak gauzatzeko, aldez aurretik Kutxa Fundazioaren Kutxa Kultur-i jakinarazi eta beraren baimen idatzia lortu beharko da.
- Ekitaldi bakoitza egiten den bitartean, lagatako leku edo gunean dauden elementu tekniko eta apaingarriak bakarrik erabili ahal izango dira, aldez aurretik eskatuta. Horri dagokionez edozein aldaketa berariaz eta idatziz baimendu beharko du Kutxa Fundazioak, eta horren ondoriozko gastuak erabiltzailearen kontura izango dira.
- Catering egitea kasu bakoitzean ebaluatuko du Kutxa Fundazioak banan-banan. Antolaketa eta kostu eratorriak, hala badagozkio, erabiltzailearen kontura izango dira, eta cateringa egiteari eragiten dion araudia betetzen dela zainduko du catering enpresako langileekin, COVID-19ak eragindako osasun-krisia kontuan hartuta. COVID-19aren ondorioz, cateringa debekatuta dago.
- Ekitaldiren bat Tabakalerak ezarritako ordutegiaz harago luzatzen bada, ondoriozko gastuak erabiltzailearen kontura izango dira.

Izen-abizenak:

Sinadura:

- Edukieraren kontrola erabiltzailearen kontura izango da, eta, nolahi ere, bera arduratuko da hori betetzeaz. Lagatako lekuaren edukiera une bakoitzean aplikatzekoa den araudiaren eta COVID-19aren ondorioak arintzeko osasun-agintariek egindako gomendioen arabera zehaztuko da. Mugikortasun murriztuko pertsonen kasuan, Kutxa Fundazioari alde aurretik abisatzea eskatzen da, behar bezala antolatzeko. Jarlekuak esleituko zaizkie ekitaldira joaten direnei, zerrenda batean jasoko dira eta, Covid pandemia dela eta, gutxienez 15 egunez gorde beharko da zerrenda hori.
- Ekitaldia egin bitartean, soilik euskarri propioa (roll-up edo antzekoak) duten elementuak erabiliz jarri ahal izango da horren publizitatea, Kutxa Fundazioak adierazitako lekuetan.
- Ekitaldiaren publizitatean helbide osoa jarriko da:
Kutxa Kultur (4. solairua, Tabakalera) edo Kutxa Kultur (1. solairua, Tabakalera).
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren —datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa— eta abenduaren 5eko 3/2018 Legearen —Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa— arabera, jakinarazten dugu erabiltzailea izango dela egindako irudi, bideo edo audioen tratamenduaren arduraduna, eta bere kontu izango dela informazioa emateko eginbeharra eta irudiak hartzeko bertaratutakoen adostasuna lortzeko eginbeharra betetzea ere, Kutxa Fundazioa erantzukizun guztietatik salbuetsita utziz.
- Kutxa Fundazioaren gune edo lekuek beren langileak dituzte instalazioen eta ekipamenduen mantentze-lanetarako. Bisitarien arreta, espezialisten lan eta abarretarako erabiltzaileari sortzen zaizkion premia edo beharrak bere kontura izango dira, baina betiere aurretik Kutxa Fundazioaren baimen idatzia lortuta eta honen arduradunek ezartzen duten funtzionamendu-araubidearen barruan.
- Zentroaren arduradunak emandako agindu eta argibide guztiak betetzera eta betearaztera konprometitzen da erabiltzailea, batez ere Kutxa Fundazioak Tabakalera dituen guneetan egon litezkeen arrisku orokorrei buruz eta larrialdi-egoeraren bat gertatuz gero hartu beharreko neurriei buruz jasoko dituen argibideei dagokienez.
- Lekua eta instalazioak lagatzen zaizkion egoera berean itzultzeko konpromisoa hartzen du erabiltzaileak, eta egindako jardueraren ondorioz bertan sortutako kalte-galeren erantzukizuna izango du, bai eta bere esku utzitako materialena ere. Ondorio horietarako, erabiltzaileak erantzukizun zibileko aseguru bat izan beharko du, Kutxa Fundazioak zehaztutako baldintzetan gutxienez, lagatako lekuetan garatuko den jardueraren arabera.

Izen-abizenak:

Sinadura:

COVID-19 ETA KUTXA KULTUR ETA TABAKALERA GUNEAK

- Maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da uneoro.
- Igogailuen erabilera ezinbestekoa den gutxienera mugatuko da, eta ahal dela eskaierak erabiliko dira. Erabili behar direnean, gehieneko okupazioa Tabakalerak ezarritakoa izango da.
- Ekitaldiaren sarreran eta irteeran, gel hidroalkoholikoak jarriko ditu Kutxa Fundazioak, bertarutzen direnek nahitaez erabili beharrekoak.
- Osasun-segurtasuneko distantzia gorde beharko da ekitaldi osoan zehar, baita Tabakalera gunean ere, ahal den neurrian behintzat. Behin eserita, komunera joateko bakarrik mugitu ahal izango da.
- Erabiltzaileen beharren arabera altzarien kokapena finkatu ondoren, ezingo dira altzari horiek mugitu.
- Aretoetako sarrera eta irteera modu mailakatuan kudeatuko ditu ekitaldiko erabiltzaileak, bertaratutakoen artean kontaktu fisikoa uneoro saihestuz.
- Lagatako lekuaren edukiera zehazteko, indarrean dagoen araudia eta osasun-agintarien gomendioak bete beharko dira uneoro.
- Aretoak garbitzeko eta desinfektatzeko lanak areagotu egin dira, higiene- eta lan-osasunaren arloko agintari eskudunek emanda une bakoitzean indarrean dauden gomendioen arabera.
- COVID-19az kutsatzeko arrisku-egoera berriaren aurrean, eta eraikinaren barruko airearen kalitateari dagokionez arrisku hori ahalik eta gehien murrizteko eta/edo minimizatzeko, estatuan eta autonomia-erkidegoan indarrean dagoen araudia kontuan hartuta, Tabakalerak beharrezko neurriak hartu ditu klimatizazio eta iturgintzako instalazioetan.

Izen-abizenak:

Sinadura:

COVID-19AREN AURKAKO PREBENTZIOA – OSASUN-GOMENDIOAK

- COVID-19arekin bateragarria den sintomatologiarik izanez gero, ez joan ekitaldira.
- Bertaratutako norbaitek ekitaldian zehar COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna, ondoez orokorra, ...) nabaritzen baditu, aretotik irten eta ekitaldiaren arduradunari jakinarazi behar dio, eta horrek Kutxa Fundazioari jakinaraziko dio posta elektronikoz: covid@kutxa.eus.
- Ekitaldia amaitu ondoren, bertan egondako batek sintomaren bat sumatzen badu, jardueraren arduradunari jakinarazi behar dio, eta horrek ahalik eta lasterren Kutxa Fundazioari adieraziko dio posta elektronikoz (covid@kutxa.eus), COVID-19ari eusteko neurriak aktibatu ahal izateko, bai Kutxa Kultur-en, bai Tabakalera-n.
- Bertaratzen denari gogorarazten zaio eztul edo doministiku egitean ahoa eta sudurra estali behar dituela, ukondoa tolestuta duela, erabili eta botatzeko zapia erabiliz.
- Eskuak sarri garbitu ur eta xaboiarekin (edo gomendatutako soluzioarekin), birusen transmisioa edo kontaktua saihesteko eta, betiere, eztul egin ondoren.
- Ez ukitu begiak, sudurra eta ahoa. Eskuek kutsatuta egon daitezkeen gainazalak ukitzen dituzte eta gero eskuekin geure burua ukitzean birusa transferitu dezakegu.
- Saihestu kontaktu fisikoa eskatzen duten agurrak: bostekoa, besarkadak, musuak... ematea.
- Ezin da materialik partekatu bertaratutakoen artean.
- COVID edukiontzi bat jarriko da bertaratzen direnen eskura, COVID-19arekin lotuta erabili eta botatzeko produktuetarako.
- Komunak banan-banan erabiliko dira, konketa inguruan jendea elkartzea saihestuko da, eta geure txandaren zain gauden bitartean pertsonen arteko distantzia mantendu behar da.

Izen Abizenak:

Sinadura:

ONARRIZKO INFORMAZIOA DATUEN TRATAMENDUAZ

Arduraduna	Kutxa Taldea: Kutxa Fundazioa, Kutxagestion Zerbitzuak, S.L.U. eta Kutxa Banku Fundazioa, horien IFK G20368593, B-75146043 eta G20336251 da, hurrenez hurren, eta helbidea Mikeletegi pasealekua 79 (Arbide dorreak), PK 20.009 Donostia
Helburua	Aretoak erreserbatzeko gestioa
Legitimación	Interesdunaren baimena
Jatorria	Zuzenean interesatuarengandik. Baimena doan ezeztatu ahal izango da Kutxa Taldeko DBEOren Kudeaketaren arduradunaren aurrean, posta arruntez (Mikeletegi pasealekua 79, 20009-Donostia, Gipuzkoa) edo posta elektronikoz: kutxa@kutxa.eus
Hartzaileak	Ez da aurreikusten datuak hirugarren batzuei jakinaraztea, legezko betebeharra dagoenean izan ezik. Aukera hori baldin badago, zure baimena eskatuko da.
Eskubideak	Datuetara sartzea, zuzentzea, ezabatzea, mugatzea, aurka egitea eta eramangarritasuna, eta Informazio Gehigarrian azaldutako beste eskubide batzuk.
Informazio gehigarria	Datuen Babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza gure webgunean (www.kutxa.eus) ikus dezakezu.

- Bai, irakurri dut eta aretoa erabiltzeko arauak betetzeko konpromisoa hartzen dut.
- Irakurri dut eta onartzen dut Datuen Babesari buruzko Politikaren Xedapen Gehigarria.

Izen-abizenak:

Sinadura: